



Cruz Roja  
Gurutze Gorria

# BIZITZA- KONTAKETAK





**Arabako Gurutze Gorriak, "Bizitza  
Kontaketa" hauen eta Aiarako Koadrilako  
hainbat emakumeren bizipenen bidez,  
pobreziazen feminizazioaren arazoak  
ilustrazten dizkigu.**

**Kontaketa ilustratu hauek helburu bikoitz  
batekin sortu ditugu: egoera hauek jasaten  
dituzten emakumeei ahotsa ematea eta  
fenomeno konplexu baten inguruko  
gogopeta modu ulergarrian sustatzea.**


Ilustrado por:



Lucía Cámara Mesanza  
@luestampados  
www.luestampados.com



Yaiza Jordana Urrechu  
@yaiza2709  
yaizaikasle@gmail.com



Ai, Maritxu, eskerrik asko berriz ere berekin geratzeagatik. Ez dakit zer egingo nukeen zu gabe.



Tira, emakumea, arratsalde bat besterik ez da eta. Gainera, oso pozik edukitzen dut nirekin.



Aitaren txanda zen, baina ikusten duzu... ozkenean beti gara gu pringatzen dugunak.

Ba bai, badakizu... azkenean beti egokitzen zaigu guri.

Bai... baina ez litzaiguke beti guri tokatu behar.

Nahiago nuke nik zure adinean zuk duzun burua eduki izan banu.

Zuk zurea ere jan behar izan zenuen, ezta?

Bai... mordoska bat, bai...

Gaztea nintzenean, nik ere pentsatzen nuen gauzak alda nitzakeela... baina gero konturatzen zara mundua ez dabilela hain bizkor.

Hain txikia zinen, Amina... Masailak gorrituta eta imibarrez beti...



Zure gurasoak ez ziren iristen.



Oso berandu arte aritzen ziren lanean, eta ezin zioten inori ordaindu zu zaintzeko.



Horregatik geratzen ziren nirekin...

...nire bilabekin botera.



Eguna halaxe josten zitzaidan, meriendak ematen,



...sukaldatzen,




...arropa plantxatzen



...eta belaunetakoak josten. Etxea beti lepo beteta, beti zalaparta nogusi.



Batzuetan nekatuta egoten nintzen, noski... baina egia da ere zuek zaintzea gustatzen zitzaidala. Familia handiagoo edukitzea bezalakoo zen.





Azkenean, beti besteak zaintzen egotea ordaindu egiten da... orain bizkarra txikituta daukat eta fisioarenean bizi naiz...




Eta hala ere, mundu guztia zaintzen jarraitzen duzu.



Zer egingo diot ba, neska? Gorputza ohitu ere egin zait.





Bost urte neramatzan  
enpresan.



Nire nagusia oso pozik  
zegoen nire lanarekin.



Prestatu egin nahi ninduela esan zidan, bera  
jubilatzerakoan nik hartuko nuela bere postua.

Nik sinistu egin nion, noski. Horixe zen  
nik nahi nuena. Ikastarotara opuntatu  
ninduen, milaka prestakuntzataro bidali  
ninduen, bulegoan geratzen nintzen  
berandu arte...



Eta ni, pozez txoratzen,  
azkenean nire lana aintzat  
hartuko zuela pentsatzen.



Eta egun batean, niri ezer esan gabe, mutil gazte bat  
kontratatu zutela jakin nuen... nire nagusiaren postua betetzeko.



Tipo berri bat, laneko  
ezer ez zekien bat  
izango zen...



niri zer egin behar  
nuen esango zidana.




Maritxu,  
azkenaldian oso  
aztoratua ikusten  
zaitut.



Garroto dut hitz hori. Emakumeek protestatzen  
dugun bakoitzean, gure nortasuna erakusten  
dugunean eta esanezkoak ez garenean,  
'aztoratuta' gaude, 'histerika batzuk' gara,  
'erotuta' gaude edo auskalo zer...

Eta orduan zer esango zidan  
eta... denbora bat hartzeko.  
Atsedean hartzeko.



Eta badakizu zer eskaini zidan?




Amatasun-baja bat.



Bi urtekoa!



Ni ama izan gabe!



Handik sei hilabetera deitu  
egin zidaten, ia-ia erreguka.




Mutikoak ez  
zuen ideiarik ere,




eta enpresa  
zulora zihoan.

Ez dakizu zer  
mesede egin zidan  
hoizea hartzera  
bidaltzeak.





Nahiago izan nuen etxean egon. Nire senarrak irabazten zuen jada nahikoa, eta nik zera pentsatu nuen... bueno, ez zitzaidala axola etreko lanetan aritzea.  
Ai... orduan jakin izan banu zein garrantzitsua den zeure diru propioa edukitzea.




Bai... zein bidegabekoa den, gainera, zuk etxean lanean urteak emateo eta ez kotizatzea. Ez jubilazio duinik, ez independentziarik...


Buf, ba bai... nik orain dirua edukiko banu niretzat...



¡IBLAAAA!!



GOAZEN PARKERA  
BUELTAKKA BAT EMATERA,  
EA LASAITZEN DEN.



Aber, normalean nire mutila oso maitekorra da, bain ...

... baina lehengoan esan zidan festara eraman nuen  
minigona motzegia zela...  
Ea zeren bila nenbilen horrela jantzita.

Ea zeren bila nenbilen  
horrela jantzita.

Entzun duzu?

Ai, neska... gouza batzuk  
ez diru aldatzen.

Ai, ama... holako gauzekin  
hasten da, eta gero nire  
lagun Nereari gertatu  
zaiona gertatzen da.



Horrelako komentarioekin hasi zen, kezka ren ibura emonez.  
Eskotea zela,

lagunak zirela, mugikorreko mezuzak zirela...



Poliki-poliki mutila Nerea bakartzen hasi zen. Gauza guztien errudun sentiarazten zuen: ateratzeagatik, barre egiteagatik, berekin zenkuzirik ez zuen bizitze bat adukitzeagatik.



Jada ez zuten ostabaidatzen, mutirik zapaldu egiten zuten. Bere gabe ezertarako ez zuela balio esaten zion, eta Nerea sinesten hasi zen.



Hilabeteak zeramatzan alde egin nahian, baina ez zeukan aurrezkinik, ez eta nora joanik ere.

Kostatu zitzaion, baina azkenean bere gurasoen etxera itzultzea erabaki zuen, gehiago ikasi eta lanean hasteko.

Bere kasuan ez zuen kolperik jaso behar izan egoeraz konturatzeko eta harremana mozteko.



A zer indarra...

Nahiz eta a zer errabia,  
oraindik halako gauzak  
gertatzen jarraitzea...

Horregatik erakutsi behar  
zaie neska gazteei inoren  
mendeko ez izaten.

Eta akerrera da  
independentzianik ez  
baduzu, harapatuta  
geratzen zarela.  
Beldurrez, diru-faltagatik,  
ohituragatik...

Aizu, zer hasi zara esaten lehen kafetegian?

Dirua eduki nahiko zenukeela ez dakit zertarako...

Ai, neska... egia esan, hainbeste urte besteak zaintzen, sekula  
ez dudala pentsatu nik zer nahi nuen. Beti bizi izan naiz

besteentzat: nire seme-  
alabak, nire gurasoak,  
nire amaginarrebo,  
nire bilobak...

Zaila da norbere buruan pentsatzea milaka gauza egin  
behar dituzunean eta hainbat pertsona zure mende  
dauzkazunean. Nitaz ahaztu nintzen... eta ez nintzen  
etxetik ateratzen ez bazen erosketak edo  
enkarguak egiteko.

Begira, 69 urte ditut... eta nire adinean  
zenbaki horrexek esaten duen gauza  
bera egin nahi nuke, baina gorputzak  
ez dit laguntzen.

**Maritxu,  
mesedez!**

Zer? Umoreak ere gartzetzen du, ezta?  
Baina beno, esaten ari nintzaizun  
bezala...



Egun batean, fisiotik irteterakoan,

FISIOTERAPIA




Carmenekin topatu nintzen arte,  
ikastolako nire lagun handiena.



Urteak neramatzan ikusi gabe.



Kafe bat hartu eta egunean jartzera joan ginen.



Esan zidan bere koadrilako emakumeekin geratu zela, ostegunero elkartzan zirela pintxopoterako.

Beraienkin geratzeko esan zidan...



eta ez dakizu nola pasatu nuen.



Zenbat denbora ez nuela hainbeste barre egin.

Ostegun hartaz geroztik, ez dut bakar bat ere galdu.



*Eta orain bidaia bat antolatzen ari dira... eta egia esan, ez dut aukera galdu nahi.*

*Lotan geratzen ari da berriz ere...*

*Joan egin beharko zenuke.*

*Pentsatu gobe.*

*Zure lagunekin egitea, barre egitea, zuretzako denboraz gozatzea... hori super garrantzitsua da.*

*Bizitzak nahikoa izorratzen gaitu.*

*Gauza da... azkenean, ezin dugula benetan egin nahi duguna egin gabe utzi. Begira nik jasan behar izan dudana guztia...*

...nire gurasoek migratu egin zuten,



iritsi nintzenean diskriminazioa jasan nuen ikastolan, desberdin bakarra nintzelako.



Gazterik geratu nintzen haurdun,





etxe propiorik eta lan egonkorrik gabe...



eta hala eta guztiz ere,

NAHI DUDAN  
BIZITZA EZ  
BAZTERTZEN  
SAIATZEN NAIZ



Neska... a zer indarra daukazun... eta nahi duzuna ez da gehiegi eskatzea. Hori eta gehiago ere merezi duzu.



Agur, Maritzu. eskerrik asko!

Agur, maitea.





**Agradecimiento a todas las mujeres  
que han compartido su historia de  
vida para poder llevar a cabo  
este cómic.**